

2017 OTS 17

**"GUERNICA" GERNIKARA
MOZIOA**

SARRERA 6.54 IRTEERA
 ENTRADA SALIDA
 ORDUA / HORA

1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak "Guernica" margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herriarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasadako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurtun 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako karraxi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika zein Euskal Herriarren beste eskaera eta garraxi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: "Guernica" margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zapalkuntza, gerraren eta herriarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin badago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzerantz eramane zuena. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoa egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arazo teknikoak aipatuz, "Guernica" bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude "Guernica" Euskal Herrira ez ekartzeko arazo nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean "Guernica"-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Bergarako Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1.- Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren "Guernica" margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, "Guernica" Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiako Gobernuari eta Kultura Ministeritzari.

2.- Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren "Guernica" margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3.- Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaltzea nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4.- Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernua eta Kultura Ministeritzari.

**Bergaran, 2017ko otsailean
Bergarako EH Bildu**

AITOR ARANZABAL

72575715-C